



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 21a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

—Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 artikulua aldatzeko eta 51. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat gehitzeko itunaren testua (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00013. Interpelazioa, azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak egin du (6. or.).

—11-24/ITP-00014. Interpelazioa, Nafarroara talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00201. Galdera, Valentziako Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetan euskara ikasteko eskola presentzialak kendu izanari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00202. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00203. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00204. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (10. or.).

—11-24/POR-00205. Galdera, Nastatek euskararen ezagutzari buruz egindako azken azterlanari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).

—11-24/POR-00206. Galdera, Viogen sistemaren datuei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00207. Galdera, Palestinako estatua aitortzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00208. Galdera, UDAL PLATEA 2024 deialdiari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (13. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (13. or.).

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 artikulua aldatzeko eta 51. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat gehitzeko itunaren testua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 71.2.b) artikulua xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko maiatzaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez, aipatu Lege Organikoaren 49.3 artikulua aldatzeko eta 51. artikulua 2. apartatuari bigarren paragrafo bat gehitzeko itunaren testua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 artikulua aldatzeko eta 51. artikulua 2. apartatuari bigarren paragrafo bat gehitzeko itunaren testua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 artikulua aldatzeko eta 51. artikulua 2. apartatuari bigarren paragrafo bat gehitzeko itunaren testuaren eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Erregelamenduko 184.2 artikulua agindutakoari jarraikiz eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko ekimena negoziatzeko batzordeak hartua, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzkoa

Honako Erabaki hau hartu du Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko ekimena negoziatzeko batzordeak:

1. 2024ko otsailaren 28an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko ekimena abiatzea, bere gain hartzeko trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko eskumena.

Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 71. artikuluan arautzen du lege organiko hori erreformatzeko prozedura, eta xedatzen du ezen, behar diren negoziazioak egin ondotik, Foru Diputazioak eta Espainiako Gobernuak, bat etorritik, erreformarako proposamena aurkeztuko dutela, eta hura Nafarroako Parlamentura eta Gorte Nagusietara eramanez, onets dezaten lege organiko hori onesteko erabili zen prozedura berari jarraikiz.

2. Honako hauek izendatu dira Nafarroako Gobernuaren ordezkari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko ekimena negoziatzeko, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari dago-kienez:

– Félix Taberna Monzón jauna, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria.

– Ana Ollo Hualde andrea, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria.

– Begoña Alfaro García andrea, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria.

– Joseba Asiain Albisu jauna, Lehendakari-tzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamen-tuarekiko Harremanetako zuzendari nagusia, ba-tzordeko idazkari lanak eginen dituena.

3. Honako hauek izendatu dira Espainiako Gobernuaren ordezkari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko ekimena negoziatzeko, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari dagokienez:

– Ángel Víctor Torres Pérez jauna, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroa.

– Arcadi España García jauna, Lurralde Politi-kako estatu-idazkaria.

– Miryam Álvarez Páez andrea, Lurralde Koor-dinazioko idazkari nagusia.

– Alicia Echeverría Jaime andrea, Gobernuaren ordezkaria Nafarroako Foru Komunitatean.

– Alejandra del Río Novo andrea, Autonomia eta Toki Lankidetzako zuzendari nagusia; idazkari lanak eginen ditu Espainiako Gobernuaren aldetik.

4. Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak, behar diren negoziazioak egin ondotik, eta bat etorritik, jarraian hitzez hitz jasotako erreforma-proposamena egiten dute, gerora Nafarroako Parlamentuak eta Gorte Nagusiek onets dezaten.

Iruñean, 2024ko apirilaren 23an

Lurralde Politikako eta Memoria Demokratiko-ko ministroa: Ángel Víctor Torres Pérez

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza Eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

**Lege Organikoaren proiektua,
aldatzekoa abuztuaren 10eko 13/1982
Lege Organikoa, Nafarroako Foru
Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari
buruzkoa, trafikoari, ibilgailu
motordunen zirkulazioari eta bide
segurtasunari dagokienez**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren helburua da, 3. artikulua arabe-ra, batasun konstituzionalarekin bateragarriak diren ahalmen eta eskumen guztiak Nafarroako foru araubidean sartzea, eta Nafarroako foru arau-bidearen ahalmen eta eskumen bereki guztiak bermatzea.

Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 2. artikulua ezartzen duenez, botere publikoek Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubi-de historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztua-ren 16ko Lege Itunduari, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari eta Espainiako Konstitu-zioari jarraikiz, haren lehen xedapen gehigarriaren lehenbiziko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du ezen lege organiko horretan ezarritako araubidea onar-tzeak ez dakarrela Nafarroari dagozkiokeen beste eskubide jatorrizko eta historikoei uko egitea, eta eskubide horiek ordenamendu juridikoan sartuko direla, kasua bada, 71. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horretan jotzen da ezen, foru araubidearen izaera juridikoa dela-eta, Foruaren Hobekuntza aldaezina dela alde bakarrak erabaki-ta, eta zehazten du zein den Hobekuntza erreformatzeko prozedura.

Bestalde, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 artikulua ezartzen duenez, trafikoari eta zirkulazioari dagokien guztian, Nafa-rroak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak osoki atxikiko ditu. Halaber, 51.1 artikulua arabe-ra, Foruzaingoaren araubidearen arauketa Nafarroari dagokio, eta, Foru Diputazioaren agintaritza gorenaren pean, gaur egun dituen eginkizunak betetzen segituko du.

Alde horretatik, eta Nafarroako Foru Komunitate-ak berriro balia ditzan, erabat balia ere, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segur-tasunaren arloko eginkizunak, bidezkoa da Nafarroa-ko Foru Komunitateak bere gain hartzea trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko eskumena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldearen barruan.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak erreforma-ekimena sustatu eta dagozkion negoziazioak egin ondoren, Nafarroako eta Espainiako gober-nuek, ados jarrita, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa erreformatzeko proposamena aurkeztu dute, eta hura Nafarroako Parlamentura eta Gorte Nagusietara eraman, onets dezaten lege organiko hori onesteko erabili zen prozedura berari jarraikiz.

Artikulu bakarra. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren aldaketa.

Honela aldatzen da abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Berre-zarri eta Hobetzeari buruzkoa:

Bat. 49. artikuluko 3. apartatuak testu hau izanen du:

«3. Nolanahi ere, aurreko apartatuek aipatzen dituzten gaietan, Nafarroak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak osoki atxikiko ditu.

Bere foru araubidearen eta lege organiko honetan xedatutakoaren arabera, Nafarroari dagozkio, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloan, Estatuko legeria betearazteko eskumena eta trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak, orain arte atxiki dituen ahalmenez eta eskumenez gain».

Bj. 51. artikulua 2. apartatuari beste paragrafo bat gehituko zaio, hirugarrena. Honako testu hau izanen du:

«Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari dagokienez, Foruzaingoa-ren eskumenak 49.3 artikuluan xedatutakoarekin bat arautuko dira».

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege organiko honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00013. Interpelazioa, azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak egindako interpelazioa, azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorritz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Erronka eta aldaketa handiak gertatzen ari diren honetan, lurraldeak egituratzen dituzten azpiegiturak funtsezkoak dira garapena ahal den kohesionatuena eta orekatuena izan dadin.

Halatan, Nafarroako Foru Komunitatea aurrebidea egiten ari da azpiegitura handiak –hidrikoak, teknologikoak, komunikazioetakoak nahiz mugikortasunekoak– egitearen arloan; izan ere, oso garrantzitsuak dira orainerako, baina baita etorkizunerako ere. Ohartuta gaude etorkizuneko belaunaldiekiko ardura handia daukagula.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak azpiegituren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diot Lurralde Kohesiorako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Eleduna: Ramón Alzorritz Goñi

11-24/ITP-00014. Interpelazioa, Nafarroara talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako interpelazioa, Nafarroara talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, talentu digitala Nafarroara erakartzearen arloko politikei buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Talentu digitala erakartzea funtsezkoa da eskualde-garapenerako. Gaur egungo egoerari dagokionez, Nafarroan ez dago enpresa teknologikoen beharrak asetzeko talentu nahikorik, eta merkatu global batean gaude, gero eta lehiakorragoa, zeinetan zaila baita berriazko profilak aurkitzea; hortaz, interesgarria da jakitea zer neurri hartu behar dituen Gobernuak gai horren inguruko gaur egungo egoera aztertu eta identifikatzeko eta talentu digitala erakartzeko ekintzak proposatzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00201. Galdera, Valentziako Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetan euskara ikasteko eskola presentzialak kendu izanari buruzkoa**MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Valentziako Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetan euskara ikasteko eskola presentzialak kendu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olló Hualde andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin zen –zehazki, maiatzaren 15ean– Valentziako Erkidegoak ez duela aurrerantzean euskara modu presentzialeran irakatsiko bere hizkuntza eskoletan. Hori dela eta, hauxe galdetu nahi diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollori:

Zer balorazio egiten duzu Valentziako Erkidegoak hartutako neurria dela-eta?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00202. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Zure ustez, egiaztatze-agentzia bat funts publikoen bidez finantzatzeak arriskuren bat izan al dezake prentsa edo adierazpen askatasunari begira?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00203. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 23ko Osoko Bilkuran (osteguna) ahoz erantzun dezan:

Lehendakaria zaren horrek nola baloratzen duzu Gobernuak Nafarroan egiaztatze-agentzia edo -entitate bat sortzeko asmoari buruz egin zenituen adierazpenek izandako oihartzuna?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00204. Galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, egiaztatze-agentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Konstituzioak aitortzen duen adierazpen-askatasuna kontuan hartuta, zure egiaztatze-agendak zer irizpide baliatuko du Botere Judizialarenak ez beste inorenak diren eskumenak beretzat hartzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00205. Galdera, Nastatek euskararen ezagutzari buruz egindako azken azterlanari buruzkoa*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nastatek euskararen ezagutzari buruz egindako azken azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak maiatzaren 23ko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Oraintsu argitaratu da Nastat-Nafarroako Estadistika Institutuaren azken azterlana, herritarrek duten euskararen ezagutzari buruzkoa. Euskararen arloko kontseilaria zaren aldetik, zer balorazio egiten duzu datu horiei buruz?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00206. Galdera, Viogen sistemaren datuei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Viogen sistemaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

VioGén sistemak emandako datuen arabera, 2024ko martxoaren 31n 1.693 kasu aktibo zeuden emakumeen aurkako indarkeria dela-eta; hau da, aurreko urtean baino % 38 gehiago. Kasuak areagotzeko joera hori pentsatzekoa da etorkizunean ere mantenduko dela.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du, zehatz-mehatz, egoera larri horri aurre egiteko eta emakume horiei laguntza integrala emateko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00207. Galdera, Palestinako estatua aitortzeari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Palestinako estatua aitortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2024ko maiatzaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak zer jarrera du Espainiako Gobernuak sustatzen duen Palestinako estatuaren aitortpenari dagokionez?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00208. Galdera, UDAL PLATEA 2024 deialdiari buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, UDAL PLATEA 2024 deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2024ko maiatzaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan apirilaren 11an argitaratu zen UDAL PLATEA 2024 deialdia, udalen gune eszenikoetan arte eszeniko eta musikal profesionalen programazioa babesteko.

Iruñerritik kanpoko zenbat udalek parte hartu dute deialdian?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko ekainaren 6ko 17:30era arte luza-tzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko ekainaren 6ko 17:30era arte luza-tzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

